

ARAUTEGIA
ESKUBALOIA 2019

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Eskubaloi Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXVIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu 2019ko maiatzaren 4 eta 5ean eta ekainaren 1 eta 2an Santurtziko Kabiezes Udal Kiroldegian. Hona hemen arautegia:

1.- ANTOLAMENDU OROKORRAK

- Mailak: Infantilak, 2005 eta 2006an jaiotako neska-mutilak.
- Partidak hogeita bost minutuko bi zati izango ditu, bien artean hamar minutuko atsedenaldiarekin.
- Eskolarteko Jokoen baitan, gehienez 18 jokalarik jokatu ahal izango dute talde bakoitzean.

Taldeek, aktan 16 jokalaria inskribatu ahal izango dituzte, 12ko minimoa partida bakoitzeko nahitaezkoa izanez. Salbuespen eran, baimenduko da ikasturtean zehar 12 jokalaria baino gutxiagorekin aritutako taldearen izena ematea. Kasu honetan jokalaria guztiek parte hartu beharko dute.

Nahitaezkoa izango da partida bakoitzean entrenatzaile eta arduradun baten izen-emate eta presentzia fisikoa, azken hau, taldeko ofiziala, taldeko laguntzailea edota entrenatzailearen laguntzailea izan daiteke, betiere, taldeko arduradunaren egin beharrak bete beharko dituelarik.

- Talde bakoitzak bi kamiseta joko edukitzea beharrezkoa da, bi taldek kamiseta berdinak eramatea gerta ez dadin.
- Jokalarientzat arriskutsua izan daitezken edozein objektu eramatea debekatuta dago; adibidez: buru eta aurpegirako babesle sendoak, eskumuturrekoak, erlojuak, eraztunak, kateak, belarritakoak, banda babeslerik gabeko betaurrekoak edo armazoi gogorrekoak. Arau hau betetzen ez duten jokalariek ezingo dute jokoan parte hartu egoera zuzendu ezean.

2.- TXAPELKETAREN EZAUGARRI ETA IRIZPIDEAK

- Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan, ikasturte berean eta dagokien lurraldeetako txapelketetan irabazleak suertatu direnak parte hartuko dute.
- Euskadiko Eskubaloiko Federazioak baloiak aurkeztuko ditu. Baloiak 50 – 52 zm eta 315 gr.tako gehiengo pisua izango du. Berotzeko baloiak parte hartzaileek eraman beharko dute.
- Edozein pegamendu mota debekatuta dago.
- Txapelketa, bi itzulerako liga sistemaren arabera jokatu da, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzatik zehaztuko den eran.
- Sailkapena puntu gehien lortzen duen taldearen arabera izango da, honako puntuaketa taula honen arabera:
 - ✓ Irabazitako partida: 2 puntu
 - ✓ Berdindutako partida: talde bakoitzerako puntu bana.
 - ✓ Galdutako partida: 0 puntu.
- Bi edo talde gehiagoren arteko berdinketa suertatuz gero, sailkapenerako irizpideak honako hauek izango dira:

Bi taldeen artean:

- 1º- Beraien artean soilik jokaturiko partidatan lortutiko gol ezberdintasuna.
- 2º- Txapelketan parte hartutako talde guztien arteko partidak kontuan hartuta lorturiko gol ezberdintasuna.
- 3º- Talde guztiak kontuan izanda, gol gehien sartu dituen taldea.
- 4º- Berdindutako taldeak kontuan izanda, aldeko golak eta aurkako golen artean lorturiko zatidura hobe.
- 5º- Parte hartutako talde guztiak kontuan izanda, aldeko golak eta aurkako golen artean lorturiko zatidura hobe.
- 6º- Lehen itzuliko partiden amaieran, beraien artean jaurtitako penaltien emaitza.

Hiru taldeen artean: *

- 1º- Beraien artean soilik jokaturiko partidatan lortutiko gol ezberdintasun handiena.
- 2º- Hiru taldeak kontuan izanda, gol gehien sartu dituen taldeak.
- 3º- Berdindutako taldeak kontuan izanda, aldeko golak eta aurkako golen artean lorturiko zatidura hobea.

* Irizpide hauek mantenduko dira, soilik 2 talde berdinduta dauden arte. Hau gertatzean, biren arteko berdinketa ematean, berdinketa irizpidea jarraituko da.

Lehen itzuliko partida bakoitzaren amaieran, eta balizko berdinketak argitze aldera, 7 metroko tanda bat garatuko da, IHF sistema eran, Euskadiko Eskubaloia Federazioaren araudi eta txapelketen araudian azaltzen dena.

3. ARAU TEKNIKOAK

- Eraso-defentsan jokalaria espezialisten aldaketak ez dira onartuko, honako argibideen arabera:

Garapena:

Partiduan zehar, ordezeko jokalaria, jokalekura, soilik beraien taldeak baloia dutenean sartu ahal izango dira, ohar-hartzaile edo kronometratzaileari abisatu gabe, betiere, ordezkutzen duten jokalaria jokalekua utzi badute.

Argibidea:

Talde batek baloia duela ulertuko da baldin eta:

- A. Taldeko edozein jokalarik baloia duenean.
- B. Aldeko jaurtitzea edo sakea egin behar denean.

Time-out-aren zehar, 2 taldeetan aldaketak egin daitezke, taldeetako arduradunek hala eskatuta.

Gola lortu denean, ulertu behar da, gola sartu duen taldea jada ez dala baloiaren jabe. Kasu hauetan, zigorra, 2 minututako kanporatzea izango da talde zigortuarentzat.

Ezinbestekak bultzatutako kasuetan, lesioa, etab., eta joko-denboraren aurretiko geldialdian (time-out), arbitroen eskutik eta hauen baimenaz, baloia ez duen taldeak aldaketak egin ditzake. 7 metro aurkako jaurtiketa batekin berretsitako talde batek atezaina aldatu nahi duenean, aldaketa honek baimendua izan beharra du. Arbitroek baloratuko dute, egoera bakoitzaren arabera, aldaketa egiteko *time-out*-a egingo den, baina berau, joku-denboraren geldialdia egon edo ez, beti izango da baimendua.

Jokalari batek talde bateko 7 metro guztiak jaurti ditzakeen bezala, atezain bakarrak jaurtiketa denak gelditzeko ahalegina egin dezake.

- Beharrezkoa da gutxienez 2 lerrotan defendatzea, baina defentsa mistoak debekatuta daude.

Arbitroek defentsa mistoak antzemanaz gero, modu honetara jardungo dira:

Lehen aldia: talde defendatzailearen entrenatzaile edo arduradunari joko denboraren etenaldia eta oharra, baimendu gabeko defentsa bat egiten ari dela esanez. Jokoari berriz ekingo zaio kolpe franko batekin, arau-hausle ez den taldearen alde, jokoaren eta jokoaren denbora etenaldia eman den momentuan baloia zegoen leku beretik.

Hurrengo aldiak: 7 metroen jaurtiketa, debekatutako defentsa jasaten duen taldearen alde. 7 metroen jaurtiketaren emaitza alde batera utzita, gola izan edo ez, alboko sakearekin hasiko da berriz ere jokoa, alboko marra eta erdiko lerroaren arteko intersekziotik, ohar-hartzaile-konometratzaile edo aldaketen guneko mahaia kokatzen den aldean, 7 metroko jaurtiketa egiten duen taldearen alde. Hau da, arau-hausle ez den taldeak 7metroko jaurtiketa izango du, eta baloiaren jabetza berriro ere.

Kasu guztietan, 7 metrotako jaurtiketak, lehen edo bigarren denbora bukaerako jaurtiketaren (joko denbora bukatuta dagoenean) begiramen bera izango du, beraz ez da alderatzea edo jarraipena emango.

- Aktan izena emandako jokalarari guztiek jokatu dute partida, gutxienez 12 minutu. Kontrol hori eramango duen pertsona bat egokituko da, eta hori izango da pertsona honen eginkizun bakarra. Pertsona honek partidua geratu dezake, araua hausten duen

entrenatzaileari ohartarazpena egin ostean, araua hausten jarraitzen badu. Kasu honetan, partidua ez da berriro hasiko taldeak egin beharreko aldaketak egin arte.

Hurrengo salbuespenak ezarri dira:

- ✓ Lesionatutako jokalaria (sorospena jasotzen badu ez dago zertan ordezkatua izan, betiere, jokia 2 minutu baino gehiago gelditzen ez bada.
- ✓ Kanporatutako jokalaria.
- Talde batek 30 goletako ezberdintasuna lortzen badu, partidua amaitutzat emango da, momentuan dagoen emaitzarekin. Geratuko den joko denboran lehiatzen jarraituko da, aktan gertakariak jaso gabe, eta sailkapen-baliorik gabe, horrela, tarte horretan ematen diren golak eta emaitzak ez dira zenbatuko. Soilik hartuko da aintzat, aurrez izandako diziiplina zigorra eta deskalifikazio edo kaleratze kasua, Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen epaile bakarrera bidaliko da.
- Txostendun (txartel urdina) deskalifikazioa ematen bada, zigortutako pertsonak ezingo du berriz jokatu bere taldearekin txapelketa guztian.

SARIAK

Lehen, bigarren eta hirugarren lekuan sailkatutako taldeentzat garaikurrak banatuko dira.

EZUSTEKOEN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortuz gero, antolakuntzak kirol instalakuntza horretarako jarritako pertsona arduradunera jo beharko da. Beronek bideratuko ditu eman beharreko pausuak.

AZKEN OHARRA

Araudi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak izango dira kontuan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziiplina-araubideari buruzkoa



EUSKADIKO XXXVIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK **XXXVIII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI**



- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2019ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2019ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVIII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2019ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2019ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVIII. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f. Eskubaloiko Euskal Federazioaren Arautegiak agindutakoa

Euskara eta gaztelaniazko araudien arteko interpretazioan ezberdintasunak egonez gero, jatorrizko bertsioan jartzen duena jarraituko da.